

## 13. Zientzia dogmaren gatibu

*Joseba Mintegi Eskisabel*



Joseba Mintegi Eskisabel lehen hezkuntzako irakaslea da eta garrantzi handia ematen dio hizkuntzaren “magia” ikertzeari eta jendeari erraz ulertarazteari.

Euskeraren Jatorriko kidea da eta hitzaldi batzuk eman ditu izan ditu gai honen inguruan.

### a) Zientzia Elizaren gatibu

---

Esan daiteke zientzia jaioberri zelarik, beste garai batean, aspaldi, librea zela. Jendeak pentsa zezakeen gure planeta, mahai gaina bezain laua zela eta ertzetatik at, ezerezero edota infernura jausten zinala. Ala, pentsatu, pentsa zezakeen ere, aldiz, lurra, biribila zela eta beste astro batzuekin batera, hor zebilela espazioan barrena.

Ordea, gizakiaren egiagatiko irrikari, ZIENTZIARI, gutxira, etsai bat sortu zitzaion, eta ez hala nolako etsaia, luzaroan iraun duena baizik. Zenbaitzuk, egia guztia eta erabatekoa zerutik, Jaungoikoarengandik zetorrela ulertzen zutenez, haren bitartekari lanak hartu zituen erlijioa bilakatu zen arerioa eta garai hartako gizaseme eta emakumealaba ugari erail zituen sutan edo bestelako torturen bidez. Egun, oraindik, ez dute barkamen hitz bakar bat ere aitortu egindako guztiagatik...

Erljioak zuen garai hartan zientzia gatibu. Horixe izan zen zientziak bere bidean aurkitu zuen lehendabiziko harria. Izan ere erlijioak ezin onar zezakeen, gizateriari bere bitartez Jaungoiko guztiz ahaltsu eta jakintsuarengandik jasotako “egia” ustela ukatuko zuen **herejiarik**.

### b) Zientzia dogmaren gatibu

---

Aldiz, gaur egun, guk ezagutu dugun eta ezagutzen dugun zientzia ez da librea. Zientzia, dogmatismo zorrotzak ezartzen dizkion kate astunen gatibu da. Aldaketak eragiten duen astindua, antza, jasangaitza bihurtzen da eta interesen izenean dogmatismoa bilakatzen da dotrina. Eta dogmatismo hori zientzia guztietara hedatuta badago ere, hizkuntzalaritza da gaitz horrek larrikien jota dagoen zientzia.

Errazagoa da ez aldatzea. Errazagoa da betiko bidean jarraitzea. Baina, argi, **HORI EZ DA ZIENTZIA**.

Bada, panorama honekin, koka dezagun zientzia bere hastapenetan. Zientziaren hastapenak, izan, aurreagokoak badira ere, gorpuzten Grezian hasi zen. Horrela daukagu jasota historikoki. Greziako gizonezkoak, emakumea bestelako plano batean uzten baitzuten, bizi maila sobera ona zuten garai hartarako eta denbora zuten, besteak beste, gauzen eta errealitatearen gainean pentsatzeko. Ordukoak dira ezagutzen ditugun lehen filosofoak. Eta horien artean ezagun eta ospetsuenetakoa den PLATON.

Bada, Platon izan zen lehenetarikoa hizkuntzalaritzaren eta etimologiaren gaia jorratzen. Hain zuzen ere, bere CRATILO izeneko laneko hiru pertsonaiak hizkuntzaren mamiak argitzen saiatzen

dira, bakoitzak euren iritzien inguruan argudioak ematen dituelarik. Bakoitza zientzia modu librean erabiliz.

Lan horretan, hizkuntzaren eta errealtatearen arteko lotura korapilatsuaz mintzatzen ari dira Hermogenes eta Cratilo bera, eta lehenak, Hermogenesek, Socratesi eskatzen dio eztabaidan parte har dezan.

Cratiloren ahoan, hitzen esanahia modu naturalez emana dator eta hitzaren eta honek izendatzen duen errealtatearen artean lotura erabatekoa da, hots, hitzak izendatzen duen horren funtsa adierazten duela. Aldiz, Hermogenesek, kontrako iritzia du. Honentzat hitzak erabat arbitrarioak dira, hautazkoak, eta hitzunen ohituren arabera, hitzun horiek horrela nahita, delako errealtate hori beste edozein hitzekin adieraz ahal izango litzatekeelarik.

Azkenik, Socrates ez da ez baten iritzira, ezta bestearenera makurtzen eta bere ustean, "hitzak batera eta bestera nahastatzearen ondorioz, ez litzateke ezertarako arraroa izango geure antzinako hizkuntza, egungoaren aldean, barbaroenetik apurrik ere ez ezberdintzea", alegia **barbaroena** berbera izatea.

### **c) Hizkuntzalaritzari falta zaion irizpide librea**

---

Platonek erakutsitako irizpide hori, irizpide libre hori da, hain zuzen ere, egungo hizkuntzalaritzari falta zaiona. Egun, hizkuntzalariak ez dira garunari zukua ateratzearen lagunak. Bereziki etimologistek ez dute ahalegin txikiena ere egiten, berez, hizkuntzaren alor hori jorratzen ari denak erakutsi beharko lukeen ahalegina egiteko, hitzen azken muineraino iristeko, alegia.

Agi denez, etimologia hitzen jatorriaz eta hauek jasandako bilakaeraz aritzen den filologiaren adarra da, baina egun filologoei bost axola non dagoen hitzen jatorria, bereziki latinak edo grekerak hitz hori bera edo antzerakorik erabili izan badute. Aski da bi hizkuntza horietako batek erabili izana, horretaraxe mugatzeko. Delako hitza latina da, edota delako hitza grekera da eta KITTO. Ez dago besterik esan beharrik. Latinera edo grekerara nola iritsi zen? Bost axola. Latinak edo grekerak erabili zituen eta dogmaren izenean, latinak, grekerak erabili bazuen, gainerako hizkuntzek, zalantzarik gabe, handik jaso dute/dugu eta beraz ez dago zertan beste ezer ikertu beharrik. Hor amaitzen da hitzaren etimologia delako zientzia horren egitekoa.

Ordea, Joxemiel Barandiaranek esan zuen bezala "hemendik eta Erromara, nahiz Erromatik honaino, distantzia berbera dago" eta, beraz, delako hitz hori handik jaso dugun ala hangoek hemendik eramana hor geratzen da. Hori bai, jakina, hizkuntza batek zer adin duen jakitea beste kontu bat da eta horretan latinak gutxi du esateko, atzo goizeko hizkuntza baita. Aldiz euskeraren adinerako, Joxemiel Barandiaranek berak ondorioztatu zuena esatea besterik ez, *Aizkora*, *Axkora*, *Aitzur*, *Atxur*, *Aizto*, *Guraize*, *Azada* eta *baita Asciola* hitzen jatorria bilatzeko Harri Arora joan beharko ginatke. Hor dugu ATX erroa.

Beraz, nor da inor KATU hitza latinetik datorkigula esateko. Horretarako ematen diguten argudio bakarra hark, latinak, hitza idatzi izana da, besterik ez, beraz euren matematiken arabera CATUS>KATU egiten du eta kitto!!! Eta KATUekin bezala beste makina bat hitzekin gertatzen da.

### **d) RAEren etimologiak**


---

Begiratu besterik ez diogu egin behar Real Academia de la Lengua Españolako hiztegiaren etimologia atalari.

Aukeratu dudun hitza JUGLAR da.



Zera adierazten digu, *de Joglar*: JOGLAR>JUGLAR, eta, beraz, begiratzeko lehenik JOGLAR hitza.



JOGLAR dio, *del latín iocularis, "gracioso", "chistoso"*.

Lehenengo akatsa Otik Urako (O>U) bidea markatzea, beti guztiz kontrakoa betetzen denean, Utik Orakoa (U>O), alegia.

Eta bigarrena IOKU eta LARI latintzat hartzea. Latinak erabili, erabili egingo zuen, noski, ez dut nik hori ukatuko, baina IOCU, JOKU euskera denik ez ukatu niri eta, zer esanik ez, -LARI euskal atzizki bat dela ere ez, latinak beste inungo hitzetan erakusten ez duena. Beraz, zertaz ari gara... Horren zaila al da hizkuntzalari batentzat agerikoa dena aintzatestea.

Serio esan behar dut, oso serio: RAEren hiztegiaren atal etimologikoa txiste txar bat baino ez da. Delako hizkuntza klasikoaren hegemoniara salduta dagoena.

Guzti honen izate arrazoia bat baino ez da, aipatu hizkuntza "klasiko" horietatik eratorri diren erromantzezi SONA ematea. Zenbat eta gehiago eduki hizkuntza haietatik jasotakoa, zenbat eta ospe handiagoa, zenbat eta entzutetsuagoa.

## e) Hemengo ikerleentzako omenaldia

---

Gaur egun, ordea, asko dira eta ugarituz doaz dogma horiek zalantzan jarri edota gaitzesten dituztenak. Izan ere zantzu asko dago besterik pentsatzeko. Nire aldetik horientzako guztientzako omenaldirik zintzoena eskaini nahi diet (eta falta diren gainerakoei ere):

Baltasar ETXABE  
Manuel Garagorri LARRAMENDI  
Pedro Pablo ASTARLOA  
Wilhelm VON HUMBOLDT  
Juan Antonio MOGEL  
Agosti XAHO  
Imanol AGIRRE  
Jose Ramon REMENTERIA  
Juan GOITIA  
Bittor KAPANAGA  
Josu NABERAN  
Felix ZUBIAGA  
Eñaut ETXAMENDI  
Jabi GOITIA  
Jon GOITIA  
...

Pertsona guzti hauen lanagatik ez balitz gaurko hizkuntzalaritzak, kolonizatuaren ikuspegia besterik ez luke eskainiko. Beraz, esan bezala, ez dut abagune hau pasatzen utzi nahi zientzia egiten eta euren egia esaten saiatu ziren eta diren pertsona guzti hauen izena aitatu gabe.

Bada, hain zuzen ere gure hizkuntzalaritza kolonizatu horren lana da gure zientzia aspaldion jasaten ari den eraso eta mespretxu larriena, Iruña-Beleiako aurkikuntzari egiten ari zaiona, alegia. Nolatan uler daiteke bestela, zientzialari batzuk indusketa baten lan eremuan eskuratutako pieza arkeologikoak faltsutzat ematea, ez arkeologiak ezagutzen dituen datazio teknikak haiek faltsuak direla esaten dutelako, hizkuntzalariek aurkikuntzako piezek erakusten duten hizkuntza ezinezkoa omen delako baizik...

Zer datu dituzte hizkuntzalari horiek orain 1.700 urteko hizkuntza nolakoa zen esateko, teorizazio hutsa ez bada...

Nik dakidala, teoria bat, zientziak, bere baitan egiten dituen aurkikuntzak eusten edota galarazten du, eta, horretarako, aurkikuntzak egiaztatu egin behar dira aurrez, delako teoria bertan behera gera dadin edota teoria hori indarberrituta atera dadin, horretarako zientzia bakoitzak bere egiaztapen bideak dituelarik.

Eta hor dugu gure Joseba LAKARRA jaunaren Aitzineuskararen teoria, bere oinarriak Koldo MITXELENAK jarri zituelarik. Iruña-Beleiako ostrakek hauen teoria ez dela eusten erakusten badute eta benetakoak badira, zer egin beharko dugu bada? Oso argi, delako teoria horren okerreko oinarriak aldatu, besterik ez.